

BERRIA. 2018-04-22

LETRETAN MURGILDUTAKO GUTIXIAK

Liburuaren Egunaren bezperan, liburu bana gomendatu diote BERRIA egunkariari hainbat idazlek. Ondorengo hau da Aurelia Arkotxa idazlearen gomendua:

AURELIA ARKOTXA

Ispiluzko labirintoan

GOMENDIOA

'Horma'

Egilea: Anjel Lertxundi.

Argitaletxea: Erein. **Urtea:** 2007.

'GOGOMENDIOA'

'Letras de la nueva España'

Egilea: Alfonso Reyes. **Urtea:** 1946.

«Ikusten duzularik obra bat lortua, izaten ahal da idatzian edo pinturan edo beste artelan batean, batzuetan gelditzen zara... uau!». Aurelia Arkotxa idazleak dioenez, idazlearen tailerlean bertan egongo balitz bezala sentitu da Anjel Lertxundiren *Horma* eleberrian. «Izugarri ongi idatzia iruditu zait, eta hizkuntza biziki lortua dauka; lan handi baten emaitza da. Konplexurik gabeko euskara bat erabiltzen du, biziki aberatsa».

Arkotxak laudatu egin ditu liburuaren lorpen teknikoak, laudatu egilearen erreferentzia basoa, laudatu frankismoari zein euskal literaturari buruzko gogoeten fintasuna, laudatu euskal letren maskulinitasuna deskribatzeko zorroztasuna eta laudatu du haren edukia ere. Izan, memoria baita nobelaren ardatzetako bat, eta interesgarri baitaio gai hori. Alzheimerrak jotako amari mintzo zaion itzultzaile baten barne jarioak gidatzen du Lertxundiren nobela, eta Arkotxak liburuaren amaierako deskripzioa aipatu

du lanaren gailur gisa. «Paisaia hoztu batean ikusten dira amaren azken momentuak, eta leihoa irekia, eta dena hoztua eta elurrean delarik... Deskripzio biziki ederra da. Musikan izaten den bezala, bukaeran soinua goiti eta goiti doala, gailur bat da bukaera hori ere».

Arkotxak ispiluz betetako labirinto batekin parekatu du memoriari buruzko jolas literario hori. «Ferietan badira labirintoak denak mirailez direnak, eta barnean sartzen zarenean ez dakizu zuzen nondik doan, eta pixka bat galduta egoten zara, baina dena da miraila jokoaren parte, eta halako inpresio bat ukan du, eta dena maisutasunez eramana».

Eta joko horretan, Arkotxak maite du Lertxundik nola urtu dituen idazletzaren eta itzulpengintzaren arteko mugak ere. «Estimagarria da nola ezabatu nahi izan duen idazlearen eta itzultzailearen arteko muga, antzinako garai klasikoetan bezala. Autorearen sakralizazioaren renegatze bat dago hor».

Arkotxarenean, pila osatzen dute irakurri nahi eta oraindik irakurri gabeko liburuek. Urrunera joan gabe, Baionako unibertsitateko bulegoko mahaian dituen bi hartu ditu adibide modura. Bata da *Letras de la nueva España*, Alfonso Reyesena; eta bestea da *Brevisima relación de la destrucción de las Indias*, Bartolome de las Casas fraidearena. Amerikan idatzitako gaztelerazko literaturaren antologia moduko bat lehena, 1946. urtekoa, eta kolonialismoaren kalteei buruzko lehen eskuko lekukotza da bestea, 1552an kaleratua. «Biziki maite ditut errelato aspaldikoak», azaldu du. «Lehengo kontaketa atzematen da prezeski arestian aipatzen nuen literatura artekotasun hori. Kontaketa bat non baden beste kontaketa bat, non baden beste kontaketa bat. Ikusten duzu denak emanak direla molde natural batean, ura bezala».